

# irutxuloko hitza

EGUNEKO TITULARRAK | AGENDA | EZTABAIDA | ZERBITZUAK | IRUDIETAN | MERKATU TXIKIA | AGURRAK | TXOKOA | ZEUK IDATZI | HEMEROTEKA

## DONOSTIA

Aiete  
 Altza  
 Amara Berri  
 Amara Zaharra  
 Añorga  
 Antigua  
 Bidebieta  
 Egia  
 Erdialdea  
 Gros  
 Ibaeta  
 Igeldo  
 Intxaurren  
 Loiola  
 Martutene  
 Parte Zaharra  
 Zubieta

## hitza

Tolosaldeko  
 Hitza  
 Oarsoaldeko  
 Hitza  
 Urola Kostako  
 Hitza  
 Busturialdeko  
 Hitza  
 Goierriko  
 Hitza  
 Lea-Artibaialdeko  
 weba

[Eman izena](#)  
[Hitza](#)  
[jasotzeko](#)

## GROS

WATERPOLOA » **ESKLEROSI ANIZKOITZA DUTENEN ALDEKO JAIALDIA**

## Waterpolo jaialdia esklerosi anizkoitza duten pertsonen alde

Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako selekzioak elkarren aurka ariko dira bihar Paco Yoldi igerilekuan

### IÑAKI ESNAOLA

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak (GEME) antolatuta eta Donostiako Tximistarri Waterpolo Klubaren laguntzarekin bihar esklerosi anizkoitza duten pertsonen aldeko jaialdia egingo dute Paco Yoldi igerilekuan. Bertan bi partida jokatuko dituzte. Batetik, 18:00etan hasiko den Gipuzkoa eta Arabako selekzioen artekoa, eta bestetik, 19:30ean Bizkaia Nafarroaren kontra jokatuko duena.

Maria Luisa Uztarroz Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak lehendakariak atzo eskainitako prentsaurrekoan adierazi zuenez, «ekimen honekin gaitza gizarteratu nahi dugu eta aldi berean dirua lortu gaixotasun gogor hau jasaten dutenei gehiago lagundu ahal izateko». Izan ere, «esklerosi anizkoitzak, sendatzeko zailtasun asko izatearekin batera, gastu ikaragarria suposatzen du». Honekin batera, Uztarrozek azpimarratu zuen Gipuzkoan 600 bat lagunek dutela gaitza eta horien artean gehienak gazteak direla.

Waterpolo partidak ikusteko eta batez ere esklerosi anizkoitza duten gaixoei laguntzeko bost euro ordaindu beharko dira. Bestalde, Decathlon eta Kukuxumuxu dendei ekimena babesteko bereziki prestatu dituzten kamisetak salgai egongo dira. Biltzen duten dirua Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearentzako izango da. Ondoren, irabazi guztiak gaixoak zaintzen dituzten zentroetara bideratuko dituzte. Bertan, «terapia gehiago eskaini eta tailer gehiago egin ahal izango ditugu, honela gaitza dutenen bizi kalitatea normaltasunera eramanez».

### Tximistarriren babesa

Kirol alorrari dagokionez, Tximistarri Waterpolo Klubari bururatu zitzaion esklerosi anizkoitzaren aldeko txapelketa bat egitea. «Aspaldian genuen buruan honelako ekimen bat», azaldu zion Irutxuloko Hitzari Koldo Gallego Tximistarriko ordezkariak. Gabonak aprobetxatuz, Donostiako elkarteak ekimena aurrera eramateko garai proposena zela ikusi zuen. «Gabonetan ligek etenaldia izaten dutenez partidak antolatzeko une egokiena iruditu zitzaigun».

Biharko partidetan lau probintziatako selekzioak ariko dira. «Araba, Bizkaia eta Nafarroako selekzioekin hitz egin eta bi partida jokatzeko adostu genuen», adierazi zuen Gallegok. Honela, Gipuzkoak tartean Tximistarriko zenbait jokalaririk dituela Arabaren aurka jokatu du eta bizkaitarrek nafarren aurka. «Gaixotasun krudel baten alde egitearekin batera, Donostian horren ohikoa ez den kirol bat ikusteko aukera paregabea izango da».

### M. LUISA UZTARROZ

#### Geme-ko lehendakaria

«Ekimen honekin gaitza gizarteratu nahi dugu eta aldi berean dirua lortu nahi dugu gaixoei gehiago laguntzeko»

### KOLDO GALLEGO

#### Tximistarriko ordezkaria

«Gaixotasun baten alde egitearekin batera waterpolo hedatzeko ekimen polita iruditu zitzaigun»



handitu

## AGENDA

### > MUSIKA

**GROS.** Ardilatxa Tour Xpression!!!(2007-01-03)

### > JOLASAK

**BIDEBIETA.** (2007-01-03)

ekitaldi guztiak ikusi

## INKESTA

### EZTABAIDA

### > DONOSTIALDEA

**Udalak Groseko Katalunia plazaren etorkizunari buruzko galdeketa egin du. Zer irudi zaizu ideia eta prozesua?**

## ZERBITZUAK

- Telefonoak
- Tren eta autobusen ordutegiak
- Farmaziak
- Internet helbideak

## IRUDIETAN



0. Kaiako jaiak 2006

>> BIDALI ZURE IRITZIA

Izena:

E-posta:

Izenburua:

Testua:

===Mezua Bidali===

Aurreko edizioak: [Aurreko edizioak](#)

© Donostiako Hedabideak S.L. - Katalina Elizegi 36 behekoa, DONOSTIA



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea